**Lanenpres**
GIDA

# LANTOKIA

ENPRESA-EGONALDIAK
**EUSKARAZ**

## Lanbide Heziketako Lantokiko Prestakuntzan eta Dualeko enpresa-egonaldietan euskara erabili ahal izateko gida

LANEKI ELKARTEA 2017

jakinbai.eus

# Lanenpres GIDA

## LANTOKIA

ENPRESA-EGONALDIAK
**EUSKARAZ**

## AGURRA

**Lanenpres gida laguntza bat** da lantokian eta Lanbide Heziketan **euskararen erabilerari beste bultzada bat emateko** eta enpresa-egonaldian ikaslearekin euskaraz aritzeko.
Horrela, uste dugu onurak nabarmenak izango direla eta etekin produktiboek hobera egingo dutela zerbitzuen kalitatean eta hobekuntzan, bezeroen eta langileen asebetetzean, eta enpresa barruko giroan.

## ENPRESAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

### Erabilera-irizpideak

Harrera egiteko erabiltzen diren dokumentuak, testuak edo euskarriak (inprimakiak, liburuxkak, kartelak, sailak, errotuluak, etab.), edozein direla ere, ele bitan egongo dira.

### Zerbitzu-hizkuntza

**Identifikazio grafikoa:**
Zerbitzu elebidunak eskaintzen dituen langilea identifikatzea, intsignia edo mahai gainekoaren bitartez.
**Ahozko jarduera:**
Hasierako agurra euskaraz egingo da beti.

ISBNA: 978-84-697-4928-9

CC BY

Gida hau eta bertako dokumentuak era librean erabili daitezke, Ikastetxe bakoitzak bere erara egokitu ditzake.

## Lehen hitza euskaraz

**Langile elebiduna**
Solaskideak euskaraz badakiela jakinez gero, euskara erabiliko du.
**Langile elebakarra**
Norbaitek euskaraz egiten badio:

- Euskaraz ez dakiela esango dio eta beste norbaitek artatuko duela adieraziko dio.
- Sailean euskaraz artatzeko inor ez badago, langileak euskaraz ez dakiela esango dio bezeroari edo langileari (begirunez), eta horregatik, ezingo duela euskaraz jardun.

## Idatzizko jarduerak

Langileentzako, enpresa-egonaldiko ikasleentzako eta bezeroentzako edozein dokumentu gutxienez euskaraz. Hori nahikoa ez bada, ele bitan egingo da. **Euskaraz aritzeko gai bada, euskaraz egingo dio.** Langileak, ikasleak edo bezeroak euskaraz ba al dakien galdetuko da beti.

## Telefonoa

Hasierako agurra behintzat, euskaraz; eta kasuan-kasuan beste hizkuntzaren batean (bezeroek eta langileek zer hizkuntza dakizkiten kontuan hartuta).
**Harrerakoak euskaraz baldin badaki:**
(enpresaren izena)
Egun on. Bai, esan?
**Harrerakoak euskaraz ez badaki:**
(enpresaren izena) Egun on. ¿Qué desea?
**Erantzungailua eta megafonia:**
Lehenengo agurra eta mezua euskaraz; ondoren, beste hizkuntzetan.


1 HARRERA ETA INFORMAZIOA 05

HAINBAT GOMENDIO 06
HASIERAKO AGURRA 07
ENPRESAREN AURKEZPENA 10
ENPRESAREN DOKUMENTAZIOA 11

2 ENPRESA-EGONALDIA 13

INFORMAZIO OROKORRA 14
LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (LP) 20
LH DUALA 23

3 BALIABIDEAK DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZAK 33

ENPRESA DATUAK ETA INFORMAZIOA 34
DOKUMENTU OSAGARRIAK 36
PROPOSAMENAK 38
DIAGNOSTIKOA ETA LAGUNTZAK 41


**Ikur honek adierazten du zein diren enpresa-egonaldian euskara erabiltzeko momentu giltzarriak.**





1 HARRERA ETA INFORMAZIOA

HAINBAT GOMENDIO 06
HASIERAKO AGURRA 07
ENPRESAREN AURKEZPENA 10
ENPRESAREN DOKUMENTAZIOA 11

2 ENPRESA-EGONALDIA

3 BALIABIDEAK, DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZAK

# 1

# HARRERA ETA INFORMAZIOA

Euskararen egoeraren arabera, enpresak eta Lanbide Heziketak eman ditzaketen pausoak, proposamenak, informazioa eta laguntzak.

# Gidarekin hasi aurretik, hainbat argibide eta gomendio:

Egin **lehen hitza euskaraz**; horrela, euskal hiztunari ateak zabalduko dizkiogu euskaraz egin dezan.

Saiatu **euskara hurbila** erabiltzen eta zuka aritzen. Erabili hitz arruntak eta ulerterrazak.

**Aintzat hartu euskara** ulertu bai, baina hitz egiteko zailtasunak dituena.

**Irribarretsu aritu.**

**Entzun** langile, bezero edo ikasleari.

**Pazientzia izan eta informazioa eman.** Informazioa falta bazaizu, bideratu dakien norbaitengana. Guretzat jakina dena bestearentzat ezezaguna izan daiteke.

**Galdezka datorrena, ahal dela, erantzuna jasota irten dadila.** Eta erantzunik ez badugu, jaso haren telefono-zenbakia edo posta elektronikoa, eta adierazi erantzungo zaiola. Pasatu mezua ardura hori daukanari.

Paperen edo inprimakiren bat bete behar denean, **argibideak eman;** eta bakarrik betetzeko gai ez bada, lagundu betetzen.

**Galdetu** ea ondorengo **zerbitzuak euskaraz jaso nahi dituen.**



# Hasierako agurra

## Agurrak eta eskerrak

### LEHEN AGURRA

- *Kaixo*
- *Egun on (goizean)*
- *Eguerdi on*
- *Arratsalde on*
- *Gabon*

### AMAIERAKO AGURRA

- *Ondo segi / Ondo ibili / Ondo izan*
- *Egun ona izan*
- *Agur*
- *Nahi duzun arte*
- *Hurrengo(ra) arte*
- *Ikusi arte*

### LEHEN AGURRARI ERANTZUNA

- *Berdin*
- *Baita zuri ere*
- *Bai, egun on (eguerdi on, arratsalde on edo gabon)*

### ESKERRAK EMAN / ERANTZUNA

- *Mila esker*
- *Eskerrik asko*
- *Ez dago zergatik*

## Telefonoz agurra

### LEHEN AGURRA

- *Enpresaren izena), egun on...*
- *Enpresaren izena), bai esan?*

Agurrak sarean eus-es:
*http://mintzalagun.com/saludos-presentaciones/*

## Telefono bidezko erantzunak

### ITXAROTEA ESKATZEKO

- *Itxaron apur bat, mesedez.*
- *Zaude pixka batean, arren.*
- *Orain beste telefono batetik ari da. Bost minutu barru deituko duzu, mesedez?*
- *Bai, unetxo bat*

### HITZORDUA EMATEKO

- *Esan zure izen-abizenak, mesedez.*
- *Zer enpresatatik deitzen duzu?*
- *Noiz datorkizu ondo?*
- *Noiz daukazu libre?*
- *Berak deituko dizu.*
- *Nire kontu*

### DEIA NORBAITI PASATZEKO

- *Zein departamentutakoa da?*
- *Oraintxe jarriko da.*
- *Orain pasako dizut deia.*
- *Memento bat, mesedez*
- *Oraintxe jarriko zaitut berarekin.*

### NAHASTU EGIN DELA ESATEKO

- *Barkatu, baina okerreko lekura deitu duzu*
- *Ez, ez da hemen, hau (enpresaren izena) da.*

### NORBAIT EZ DAGOELA ESATEKO

- *Une honetan ez dago. Abisua utziko diot.*
- *Bilera batean dago. Mezuren bat utzi nahi diozu?*
- *Ez du erantzuten. Bost minutu barru deituko duzu berriro?*

### BESTERIK

- *Zure telefonoa, mesedez*
- *Zure posta elektronikoa, mesedez*

Agurrak youtuben:
https://www.youtube.com/watch?v=4yn_O8AYX7k

## Datu pertsonalak eskatzeko

- *Izen-abizenak mesedez.*
- *Zein dira zure izen abizenak?*
- *Zure izena?*
- *Esan, mesedez, zure datuak: Izen-abizenak, adina...*

## Lanbide-arloko datuak

- *Zein da zure lanbide-arloa?*
- *Zein lanbide-arlotakoa zara?*
- *Zein lanbide-arlotan egiten duzu lan?*
- *Zein lanbide-arlorekin hitz egin nahi duzu?*




Lanbide-arloak: https://ivac-eei.eus/eu/

## Bezeroaren, langilearen edo ikaslearen fitxa egiteko agiria eta datuak

http://jakinbai.eus


Lanpres GIDA

BEZERO- IKASLEAREN FITXA

EZAGUPENEKO DATUAK

N.A.N./I.F.K.

Bi izenak eta izena / Sozietatearen izena

Gizonezkoa Emakumezkoa

Jaiotze Data:

HELBIDERATZE DATUAK

Helbidea

Udala Posta Kodea

Lurraldea

# Enpresaren aurkezpena

**Enpresara kanpotik datorren pertsonari harrera egiteko gidoia eta beste dokumentu batzuk.**

- Kokapena
- Irudi korporatiboa
- Enpresaren izaera eta enpresako hizkuntza-kudeaketa
- Lan-esparrua eta produktuak
- Organigrama
- Sailak/departamentuak, koordinazioa eta ardurak
- Langile-antolakuntza eta pertsonala
- Bezero mota, tratua eta hizkuntzen kudeaketa
- Ordutegia, egutegia
- Soldata
- ...

Enpresako hizkuntza-kudeaketa:
*http://www.artez.net/hizkuntza_aholkularitza.html*

Ereduak eta errotuluak:
*http://www.euskara.euskadi.eus/r59-18644/eu/contenidos/informacion/agiri_ereduak_11_atalenerrot/eu_atal/atalen_adibide4.html*

Euskara Planaren eredua:
*http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/planes_euskera/eu_00122/plan_adibideak.html*



# Enpresaren dokumentazioa sarean

## Prozedurak eta lan-arriskuen prebentzioa

- Enpresaren barneko prozedurak
- Lan egiteko erak eta jantziak
- Izapideak
- Eskaerak
- Segurtasun-neurriak eta norberaren babeserako ekipoa

## Fakturazioa

- Arduraduna
- Prozedura
- Eredua

## Ebakuazio-plana

- Ebakuazio-abisua
- Sail edo solairu bakoitzeko arduraduna
- Larrialdietarako irteera
- Elkartzeko gunea

Itzultzaile-zerbitzuak:
*http://www.eizie.eus/*

Enpresaren dokumentazioa:
*www.jakinbai.eus*







1 HARRERA ETA INFORMAZIOA

2 ENPRESA-EGONALDIA

INFORMAZIO OROKORRA 14

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (LP) 20

LH DUALA 23

3 BALIABIDEAK, DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZAK

# 2

# ENPRESA-EGONALDIA

Ikasleak Dualeko lantokiko egonaldian eta Lantokiko Prestakuntzan euskara erabiltzeko aholkuak, irizpideak eta informazioa.

# Informazio orokorra

## Lantokiko Prestakuntza (LP) eta LH duala

LANENPRES Gidak baliabideak eskaintzen ditu, Lantokiko Prestakuntzan eta Dualean euskara erabili ahal izateko. Noiz eta nola, prozedura, egutegia, Ikastetxeko informazioa, datuak, dokumentazioa eta Instruktore/tutorearen eginkizunak.





## Lp

### Zer da Lantokiko Prestakuntza?

Zikloko ikasketak bukatzeko lantokian egiten diren praktikak dira. Ikasgai bat gehiago da.

## duaLa

### Zer da LH Duala?

Lanbide Heziketa Dualak **ikaskuntza-prozesuak konbinatzen ditu enpresa eta ikastetxeetan,** batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez.

Ikasleek enpresan egingo duten formakuntzak lotura estua izan behar du heziketa-zikloko lanbide-profilarekin eta programatutako espezializazioekin. Horrenbestez, enpresan egindako lan horiek, produkzio-emaitza ez ezik, ikaskuntza bera ahalbidetu behar dute, bai eta, azken finean, zenbait gaitasun eskuratzea ere: lanari dagozkion gaitasunak, espezializazioari dagozkionak, eta enplegagarritasuna hobetzeko bestelako zeharkako gaitasun erabilgarri batzuk.

Lp duaLa

## Nork hartzen du parte?

### Pertsonak

| | |
|---|---|
| **HNAT** | Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzako Arduradun Teknikoa. Lanpreseko helburuak HN Planean izateaz eta prozesua bultzatzeaz arduratzen da |
| **LP-DUALeko koordinatzailea** | Lantokiko Prestakuntza eta Dualeko enpresa-egonaldia koordinatzen dituena; horietan euskara erabiltzeko bultzada emango duen pertsona giltzarria |
| **Ikaslea** | Ezinbestekoa da jarrera positiboa izatea eta euskaraz lan egin nahi izatea |
| **Tutorea** | Ikaslea bideratzen du, LP-Dualeko enpresa-egonaldian euskara erabil dezan |
| **Enpresako harreragilea** | Ikaslea enpresara joaten den unea funtsezkoa da, eta harrera euskaraz egiteak garrantzi handia du |
| **Instruktorea** | Instruktorearekin euskara erabiltzen den ala ez, horrek markatzen du lan-praktikak edo Duala euskaraz egitea |
| **Enpresako euskara-arduraduna** | Enpresak HN Plana izateaz arduratzen da: txartelak, horma-irudiak, dokumentuak, aplikazioak, prozedurak...euskaraz egoteko bideak jartzen ditu |
| **Lantaldea** | Funtsezkoa izango da lan-harremanetan euskara erabiltzea |

### Erakundeak

| | |
|---|---|
| **Ikastetxea** | Ikasleak bere garapen pertsonala eta profesionala egingo du bertan, lan munduarekin lotuta, lanbide-arlo bati dagozkion ezaguerak eta trebetasunak lortzeko helburuarekin. Lantokiko Prestakuntza eta Ikasketa Duala ikasketa horien zati dira. Zuzendaritzak zuzeneko eragina izango du ikastetxean euskara erabil dadin. |
| **Lantegia** | Lantegian gauzatzen dira Lantokiko Prestakuntza eta Ikasketa Dualeko enpresako ikasketak. Euskaraz egin ahal izateko, ezinbestekoa da euskararen gutxieneko presentzia eta erabilera izatea. Zuzendaritzaren jarrerak garrantzi handia du Lantokian euskara erabil dadin. |
| **Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetza** | Lanbide Heziketaren antolaketak ezartzen du euskarak bertan izango duen garrantzia; sustatzeko eraldaketak eta berritzeko ekintzak planifikatu eta arautzen ditu. Lanbide Heziketako Euskal Plana garatu, aplikatu eta eguneratu egiten du. |
| **Beste eragile batzuk** | Hezkuntzarekin zuzeneko harremanik ez badute ere, foru-aldundiek, udalek, garapen-agentziek, sindikatuek, enpresari-elkarteek... aurrerapausoak emateko politiketan eragiten dute, horiek sustatuz eta gauzatzen lagunduz. |

Lp duaLa

## Ezer egin aurretik, Lanbide Heziketako erreferentzia-ikastetxearekin harremanetan jarri

### Lanbide-arloak



### Helbideak



ZERRENDA-MOTA AUKERATU

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEEN HELBIDETEGI OROKORRA
IRAKASKUNTZARAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN ETA ADMINISTRAZIO-GUNEEN KONTSULTA
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEETAN EMATEN DIREN IRAKASTEREDUEN KONTSULTA
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEETAN EMATEN DIREN ESPEZIALITATE/MODALITATEEN KONTSULTA
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEETAN EMATEN DIREN ESPEZIALITATE/MODALITATE ETA IRAKASTEREDUEN KONTSULTA
ARAUBIDE BEREZIKO IKASTETXEETAN EMATEN DIREN ESPEZIALITATEEN KONTSULTA (HIZKUNTZAK, MUSIKA, ETAB..)
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEEN HELBIDETEGIA: ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUAK
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEEN HELBIDETEGIA: DIRUZ LAGUNDUTAKO ITUNGABEKO IKASTETXE PRIBATUAK
ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEEN HELBIDETEGIA: BESTELAKO IKASTETXE PRIBATUAK



UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEEN HELBIDETEGI OROKORRA
IKASTURTEA 2016/2017

H.U.I.S.
DATA 2017/06/16

| GIS | W | LURRALDEA | MENPEKOTASUNA | KODEA | IZENA | HELBIDEA | UDALERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010106 | IES I. AGRARIO ARKAUTE/ARKAUTE NEKAZARITZA I. BHI | ARKAUTE S/N | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010133 | IES FEDERICO BARAIBAR BHI | NIEVES CANO 14 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010134 | IES FRANCISCO DE VITORIA BHI | EL SALVADOR 1 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010137 | CIFP CIUDAD JARDÍN LHII | ÁLAVA 39 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010138 | CIFP MENDIZABALA LHII | PORTAL DE LASARTE Z/G | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010157 | IES MURGIA BHI | DOMINGO DE SAUTU Z/G | ZUIA |
| | | ARABA/ÁLAVA | HEZKUNTZA SAILA | 010201 | IES LAUDIOALDE LANBIDE ESKOLA BHI | VIRGEN DEL CARMEN 17 | LAUDIO/LLODIO |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010208 | CPES SUZANNE BHIP | BTO. TOMÁS DE ZUMARRAGA 27-A | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010214 | CPFPB BERMAR OLHIP | SAN ANTONIO 43 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010221 | CPEIPS URKIDE HLBHIP | MAGDALENA 8 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010228 | CPEIPS PRESENTACIÓN DE MARÍA HLBHIP | CRUZ BLANCA 4 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010229 | CPEIPS CARMELITAS-SAGRADO CORAZÓN HLBHIP | FUEROS 49 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010244 | CPEIPS PAULA MONTAL HLBHIP | PAULA MONTAL 9 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010248 | CPES EGIBIDE BHIP | NIEVES CANO 10 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | ARABA/ÁLAVA | PRIBATUA | 010254 | CPES APOSTOLICO SAN JOSE BHIP | LANGRAIZ 2 | IRUÑA OKA/IRUÑA DE OCA |

Lanbide arloak:
*https://ivac-eei.eus/eu/*

Helbideak:
*http://www2.hezkuntza.net/p31DirectorioWar/p31ListadosDifusionJSP/p31ListadosDifusion.jsp?idioma=e&listado=c&pageId=1111513746&ID_NAVEGACION=1*

Lp duaLa

# Ibilbidea

**Lau aldagai nagusik eragiten dute ikasleak enpresan zer hizkuntza erabiliko duen:**

## 1. Instruktorea:

Lantokiko Prestakuntzaren ardatz nagusia hau da: ikaslearen eta ikasle horri enpresan lana erakutsiko dion instruktorearen arteko harremana. Instruktorearen gaitasuna eta hizkuntza-jokabideak giltzarriak dira.

## 2. Harrera:

Harrera-unea da ikasleak enpresarekin izango duen lehen harreman ofiziala. Hasierako minutu horietan sumatuko du ikasleak enpresako giroa; besteak beste, zein hizkuntza-politika darabilen enpresak.

## 3. Hizkuntza-paisaia:

Leku berri batera iristen garenean, euskarak errotulazioan duen presentziaren arabera interpretatzen dugu zenbateraino egin dezakegun euskaraz. Errotulu handiek, informazio-guneek, apal, karpeta eta armairuetako errotulu txikiek... osatuko dute ikasleak ikusiko duen giroa. Era berean, lanerako garrantzitsuak diren hainbat elementu ere izango ditu ikasleak inguruan (laneko dokumentuak, aplikazio informatikoak, instrukzioak...); horiek euskaraz egotea lagungarria da euskaraz lan egiteko.

## 4. Lankideak:

Horiek ere hizkuntza-paisaiaren parte dira, ikasleak entzun egingo baitie beren artean hitz egiten dutenean. Kasu askotan, hori baino gehiago gertatuko da, ikasleari zuzenean mintzatuko zaizkion heinean. Garrantzitsua da harrera egitean langile euskaldunak euskaraz aurkeztea.




Koadro honetatik kanpo geratu dira bezeroak edo erabiltzaileak. Kasu askotan, ikasleak ez du harremanik izaten haiekin, baina, hala denean, komeni da hizkuntza-erabilerarako irizpideak eta prozedurak argi izatea.


Lp
duaLa
Lehen agurra euskaraz

Lp

# Lantokiko Prestakuntza (LP)

## Lantokiko Prestakuntza euskaraz

Lantokiko Prestakuntza (LP) lantokian burutu beharreko derrigorrezko prestakuntza-programa da. Euskaraz egin ahal izateko, ikaslearen eta instruktorearen arteko komunikazio-hizkuntzak euskara izan behar du.

- LP-k **385 orduko** iraupena izan ohi du (3 hilabete).
- Enpresa-egonaldiaren jarraipena ikastetxeko tutoreak egiten du.
- Azken **ebaluazioa** enpresako instruktorearen eta ikastetxeko tutorearen artean egiten da.
- Lantokiko Prestakuntza euskaraz egitearren, **erakunde batzuek laguntzak ematen dituzte.** Informazio gehiago hemen: *http://jakinbai.eus/foroa/fct*



Informazio gehiago hemen:
- *http://jakinbai.eus/foroa/fct*
- *http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-3072/eu/contenidos/informacion/form_cen_trabajo/eu_1977/dekreto_e.html*

Lp

## Lantokiko Prestakuntza

Beltzez agertzen diren dokumentuak jakinbai.eus webgunean daude: *http://jakinbai.eus/zz-zehar-lerroa/lantokiko-prestakuntza-duala*

| | |
|---|---|
| **Hasiera** | • Enpresak eta ikastetxea harremanetan jarri eta eskaera egin.<br>• Lehenengo hitza euskaraz.<br>• Telefonoz edo itzaziz<br>• Azaroa-abendua. |
| **Ikasle kopurua** | • Kontrastatu ikasle kopurua eta adostu.<br>• Egutegia, ordutegia aurreikusi.<br>• Urtarrila-otsaila. |
| **Datuak** | • **Enpresa-ikastetxea: datuak eta informazioa trukatu.**<br>• Instruktorea-tutorea izendatu.<br>• Otsaila. |
| **Hitzarmena** | • Ikastetxea-enpresa bisitak.<br>• **Hitzarmena.**<br>• Otsaila |
| **Harrera** | • **Ikasleari harrera:** enpresa aurkeztu, hau da, izaera, hizkuntza-plana, lan-ohiturak, organigrama, segurtasun-neurriak, prozesuak, larrialdi-plana...<br>• Egutegia-ordutegia, lan-esparrua, instruktorea, lankideak...<br>• Martxo hasiera. |
| **Enpresa egonaldia** | • Praktika-aldia 385 ordu<br>• **Ikaslearen koadernoa**<br>• **Instruktorearen koadernoa**<br>• Martxoa-ekaina |
| **Ebaluazioa** | • **Instruktorearen ebaluazioa**<br>• **Enpresaren asetasun maila**<br>• Ekaina |
| **Amaiera** | • **Balorazioa eta hobekuntzak**<br>• Ekaina |

**Enpresak ez dio ikasleari ordaindu behar**

**Enpresak ez du ardura juridikorik ikaslearengan**

**Ikasleak ikastetxeak eginiko asegurua izango du**

**Ez da diru-laguntzarik izango ez ikaslearentzat ezta enpresarentzat ere**

**Ikasleak lantokiko egutegia eta ordutegia errespetatu behar ditu**

Lp

## LP egutegia

<table>
<tr><th>DATA</th><th>ENPRESA</th><th>IKASTETXEA: LP-KO ARDURADUNA</th></tr>
<tr><td>URRIA</td><td>Enpresaren beharrak aztertu eta inguruko ikastetxeek dituzten Heziketa Zikloak aztertu.</td><td>Bilera: LANeNPRES gida aztertu eta plana egin.</td></tr>
<tr><td>AZAROA</td><td>Enpresaren eta ikastetxearen arteko hitzarmena aztertu eta egokitu.</td><td>Dokumentazioa aztertu eta egokitu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ABENDUA</td><td>Enpresak ikastetxeei ikasleak eskatu, Enpresako hizkuntza-egoera kontuan izan.</td><td>Enpresetarako informazioa aztertu, eta informazioa eta datu-eskaera bidali: Harrera-hizkuntza / instruktorea / dokumentazioa / lantaldea</td></tr>
<tr><td>Lan Hitz enpresetan euskara sustatzeko ekimena. Diru-laguntzen deialdiaren informazioa aztertu (abenduaren 3.astea).</td><td>Enpresei Lan Hitz diru-laguntzen berri eman. Bikain eta Bai euskarari ziurtagiriak</td></tr>
<tr><td rowspan="2">URTARRILA</td><td>Ikastetxearekin aztertu zer ikasle dagoen praktikak euskaraz egiteko moduan.</td><td>Enpresak aztertu eta datuak jaso.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikaslearentzako jardunaldia antolatu: euskararen garrantzia laneratze-prozesuan eta enpresa-egonaldian.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">OTSAILA</td><td colspan="2">Bilera: enpresa eta ikasleak esleitu.</td></tr>
<tr><td>Enpresaren harrera-koadernoa aztertu eta euskarara egokitu.</td><td>Ikastetxearen hizkuntza-trataerari buruzko eta ikasleari buruzko informazioa enpresara bidali.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Enpresari diru-laguntzen berri eman.<br>Ikasleak egin ditzakeen lanak zehaztu.<br>Ikaslearen, tutorearen, instruktore/tutorearen koadernoak egokitu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">MARTXOA</td><td colspan="2">Ikaslea praktiketan jarri enpresan: harrera-hizkuntza / instruktorea / dokumentazioa / lantaldea / koadernoak banatu.</td></tr>
<tr><td></td><td>Ikaslearen eta enpresaren datuak aplikazioan sartu.</td></tr>
<tr><td>APIRILA</td><td></td><td rowspan="2">Ikaslearen jarraipena egin.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">MAIATZA</td><td>Ikaslearen egoera aztertu.</td></tr>
<tr><td></td><td>Enpresa-egonaldietako ikasleen estatistikak atera.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">EKAINA</td><td colspan="2">Ebaluazioa: ikaslearen enpresa-egonaldiaren bukaera, dokumentazioa banatu eta jaso. Euskararen trataera eta estatistikak aztertu.</td></tr>
<tr><td>Bilera: hobekuntzak planteatu datorren ikasturterako.</td><td>Enpresa-egonaldiko memoria egin, hobekuntzak eta Dual-eko proposamena planteatu.</td></tr>
</table>

duaLa

# LH Duala

## Txandakako Lanbide Heziketa Duala euskaraz

Ikasleek enpresan egingo duten formakuntzak lotura estua du heziketa-zikloko lanbide-profilarekin eta programatutako espezializazioekin. Enpresan egindako lanak, produkzio-emaitza ez ezik, ikaskuntza bera ere ahalbidetuko dute, azken finean, lanari eta espezializazioari dagozkien gaitasunak, eta enplegagarritasuna hobetzeko.

Informazio gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/faq-items/zer-da-txandakako-lanbide-heziketa-duala/*

Izapideak eta dokumentazioa:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/izapideak-eta-dokumentazioa/*

## LH Dualaren helburuak

**Lanbide Heziketako** titulu bat lortzeko aukera ematea da helburua, **ikastetxeen eta enpresen** artean lankidetzan garatzen den ikaskuntza-prozesu baten bitartez.

## LAN eginez IKASI

LH Dualak **gazteak** lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea bilatzen du, horretarako kalitateko enpleguak sustatuz. Langilearen kualifikazioari eta gaitasunari lehentasuna ematen zaio.


Euskara 1 | Gaztelera | Bestea

1. Instruktorea euskal hiztuna da.
2. Aurreko puntua + Harreragilea euskal hiztuna da.
3. Aurreko puntua + Dokumentuen eta/edo aplikazioen %50 euskaraz daude.
4. Aurreko puntua + Lantaldearen %50 euskal hiztuna da.

Enpresari eskatu beharreko datuak.

duaLa

## LH Dualaren modalitateak

### 2 urteko modalitatea

2 urteko planen helburua da **ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea**; 2.400 eta 2.800 ordu arteko iraupena dute osotara.

**1. IKASTURTEA**

Ikastetxea bakarrik

**2. IKASTURTEA**

Ikastetxea

Enpresa

### 3 urteko modalitatea

3 urteko planen helburua da ekoizpen-prozesu **konplexuak** direla-eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien espezializazio bat eskuratzea; 3.400 eta 4.700 ordu arteko iraupena dute osotara.

**1. IKASTURTEA**

Ikastetxea bakarrik

**2. IKASTURTEA**

Ikastetxea

Enpresa

**3. IKASTURTEA**

Ikastetxea

Enpresa

## Proiektua egiteko kontuan hartu beharrekoa

**Proiektuaren deskribapena**

- Lanbide Heziketako tituluaren identifikazioa
- Aldekideen identifikazioa
- Lanpostuaren identifikazioa
- Ordutegi-banaketa eta egutegia

**Diseinua, planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa**

- Enpresan eta ikastetxean garatuko den programazioa
- Ikastetxeko eta enpresako tutoreen aldetik ikaslegoa artatzeko plana
- Ebaluaziorako sistema ezartzea

**Konpromisoa**

- Ikasleak baldintzak eta ezaugarriak ezagutzen dituela ziurtatzen duen konpromisoa, idatziz eta sinatuta



duaLa

## LH Duala Prozesua

**HASIERA** | JARRAIPENA | EBALUAZIOA

Administrazio-izapideekin hasi baino lehen, ikastetxeak eta enpresak LH Dual proiektu edo plan bat prestatu beharko dute elkarrekin ikaslearentzat.

Kontratu bidezkoa zein beka bidezkoa izan, planak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren baimena izan beharko du.

Baimena izapidetu ondoren, ikastetxeak Eusko Jaurlaritzaren aplikazioan sartuko ditu planaren datuak, ondoren onespena jaso dezan.

**Kontratua**

Egoitza elektronikorako sarbidea:
- Baimen-eskaria
- Prestakuntza-kontratua
- ERANSKINA I – Lanbide

Lanbide diru-laguntza:
- Diru-laguntza eskaria – Eranskina III
- Diru-laguntzaren justifikazio-txostena.

**Beka**

- H03 – 2017V1 – Ikastetxearen eta enpresaren arteko lankidetza-hitzarmena, LH Dualeko planak egiteko.

**Dokumentu orientatzaileak**

- H01 -2017V1 - LH DUALEKO PROIEKTUA
- LH Dualeko proiektu baten adibidea.
- Eusko Jaurlaritzaren aseguruari buruzko informazio-oharra
- Diptikoa: enpresentzat aurkezpena

**Egoitza elektronikoko aplikazioa**

- SEPEren prestakuntza-jardueren eta azken ebaluazioaren planifikazioa.
- Bideotutoriala: SEPErako sarbidea
- Bideotutoriala: SEPEren prestakuntza-jardueretarako baimenaren pantaila-irudiak
- SEPEren LSN (Lanbideen Sailkapen Nazionala) kodeak
- SEPEren prestakuntza-zikloen akronimoak

Informazio gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/izapideak-eta-dokumentazioa/*



duaLa

## LH Duala Prozesua

HASIERA → **JARRAIPENA** → EBALUAZIOA

Prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuan zehar, ikastetxeko tutoreak eta enpresako erakusleak jarraipena egingo dute, ezarritako LH Dual plana behar bezala betetzen dela zaintzeko.

**Dokumentu orientatzaileak**

- J02 - 2017V1 - IKASLEGOAREN JARRAIPENA - JARDUERAK
- J03 - 2017V1 - IKASLEGOAREN JARRAIPENA - IKASKUNTZA KOADERNOA
- Ikaslearen koadernoaren adibidea
- Ikaslearen koadernoaren adibidea 2

Info gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/izapideak-eta-dokumentazioa/*

## LH Duala Prozesua

| HASIERA | JARRAIPENA | **EBALUAZIOA** |
|---|---|---|

Prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuan zehar, irakasleek hartuko dute ikasleak ebaluatzeko ardura, enpresako erakuslearen ekarpena ere aintzat hartuta.

**Dokumentu orientatzaileak**

- EB01 - 2017V1 - IKASKUNTZA-EMAITZEN EBALUAZIOA
- IKASKUNTZA-EMAITZEN EBALUAZIOAREN ADIBIDEA
- EB02 - 2017V1 - IKASTETXEKO LH DUALEKO PLANEN AZKEN MEMORIA
- Gogobetetasun-inkestak: enpresetako erakusleak.

Informazio gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/izapideak-eta-dokumentazioa/*

duaLa

## Egin beharreko urratsak

1. Txandakako Lanbide Heziketa Dualaren ereduan interesatuta dauden enpresak **harremanetan jarri** beharko dira EAEko Lanbide Heziketako Ikastetxe publiko edo itunpeko-pribatuetako batekin, edo bestela, enpresa-elkarte batean jakinaraz dezakete proiektuan parte hartzeko interesa dutela.

2. Programa datorren eskola-ikasturtean nola abiatu planifikatu ahal izateko, enpresak zer lanbide-profil lortu nahi duen **jakinarazi beharko dio ikastetxeari**.

3. Ondoren, ikastetxeak **hautagai posible batzuk** proposatuko dizkio enpresari.

4. **Enpresak** bere eskakizun eta aurreikuspenetara gehien egokitzen den **ikaslea hautatuko du**.

5. Ikastetxeak eta enpresak **ikaskuntza-heziketa-laneko** plan bat zehaztuko dute ikaslearentzat. Planak Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza Sailaren baimena** beharko du. (ikusi proiektua egiteko kontuan hartu beharrekoa 24. orrialdean)

6. Enpresak eta ikastetxeak tutore bana izendatuko dute; **lan-kontratu edo beka bat formalizatuko** da ikaslearekin, eta hitzarmen bat ikastetxearekin.

duaLa

## LH Dualaren abantailak

### Enpresentzat

Langile **kualifikatuak** prestatzen ditu, **Euskal Herriko enpresen ekoizpen-sarearen premietara egokituak, eta enpresetako prozesuetan eta kulturan ikasiak**. Horrek enpresen lehiakortasuna areagotzen du.

Programaren bidez, pertsonak **ezagutzeko eta hezteko** aukera du enpresak.

Esperientzia honek enpresako **belaunaldi-erreleboa** errazten du.

### Ikasleentzat

Ikasleek benetako lan-egoeretan ikasten dute eta **lan-esperientzia** handia lortzen dute.

Egindako lanaldiarekiko proportzionala den ordainsaria jasotzen dute, kontratuaren edo hitzarmenaren arabera, eta Gizarte Segurantzan kotizatuz hasten dute beren lan-bizitza.

**Enplegagarritasuna** hobetzen du.

### Ikastetxeentzat

Informazio ezin hobea lortzen du, lan-merkatuak behar dituen beharrei aurre egiteko.

Enpresen eta ikastetxeen arteko loturak estutzen ditu.

Enpresen ESK-ko politikak (Erantzun Sozial Korporatiboa) laguntzen ditu.

Informazio gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/informazio-orokorra/*

***Dual modalitatea euskaraz egiteak zerbitzua eta kalitatea hobetzen du.***

duaLa

## Dual modalitatearen datuak

Asko dira egun heziketa- eta ikaskuntza-eredu honetan parte hartzen ari diren Euskadiko enpresak, eta askotarikoak parte-hartze horrek enpresei dakarzkien onurak.

Kontratu bidezko modalitateak honako pizgarri ekonomiko hauek aurreikusten ditu:

- **LANBIDE zerbitzuaren** diru-laguntza.
- %100erainoko murrizketa Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotetan.

Informazio gehiago:
*https://www.fpeuskadiduala.eus/enpresak/informazio-orokorra/*

**+800**
enpresak baino gehiagok hartzen dute parte

**%95** ekoa
da enpresen gogobetetasun-maila

**%77**
dira kontratua lortu duten ikasleak

duaLa

# LH Dualeko egutegia

| DATA | LEHEN IKASTURTEA | BIGARREN IKASTURTEA |
|---|---|---|
| IRAILA | Enpresei informazioa bidali | Ikaslea lanean jarri, eta jarraipena egin |
| URRIA | | |
| AZAROA | | |
| ABENDUA | | |
| URTARRILA | Ikasleei aurkezpena | |
| OTSAILA | Proiektua egin; Lanpres Gida | |
| MARTXOA | | |
| APIRILA | | |
| MAIATZA | Ikasleen eta enpresen datuak sartu | |
| EKAINA | Ikasleen esleipena | Ebaluazioa Memoria Estatistikak |
| UZTAILA | Ikaslea enpresan lanean jarri, eta jarraipena egin | |
| ABUZTUA | | |



1 HARRERA ETA INFORMAZIOA

2 ENPRESA-EGONALDIA

3 BALIABIDEAK, DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZAK

| | |
|---|---|
| ENPRESA-DATUAK ETA INFORMAZIOA | 34 |
| DOKUMENTU OSAGARRIAK | 36 |
| PROPOSAMENAK | 38 |
| DIAGNOSTIKOA ETA LAGUNTZAK | 41 |




# 3

## BALIABIDEAK, DOKUMENTAZIOA ETA LAGUNTZAK

Lan-munduan, Lanbide Heziketan eta enpresa-egonaldian euskara erabili ahal izateko proposamenak, baliabideak eta laguntzak.

# Enpresako datuak jasotzeko eredua

Duala edo Lantokiko Prestakuntza euskaraz egin ahal izateko ikastetxeetatik euskarazko dokumentazioa jasoko da. *Jakinbai.eus* edo *fpeuskadiduala.eus* webguneetan daude.

jakinbai.eus LANEKI Lanpres GIDA LanbideEkimena

**LP edo DUALA egiteko ikasle-eskaera**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Enpresaren izena** | | | |
| **Langile-kopurua** | | | |
| **Helbidea** | | | |
| **Herria** | | | |
| **Posta-kodea** | | | |
| **Lurraldea** | | | |
| **Enpresako kontaktuen izen-Abizenak** | | Harremanetarako hizkuntza: eus | es |
| **Harremanetarako e-posta** | | | |
| **Harremanetarako telefonoa** | | | |
| **Enpresa-arloa** | | Publikoa | Pribatua |

| Zikloa (OLH/EM/GM) | Ikasle-kopurua: Lantokiko Praktika | DUALA: Beka | DUALA: Kontratua | EUSKARAZ EGITEKO AUKERA*: 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | Enpresako instruktorearen izen-abizenak | Bezeroekin harremanak: eus | es | fra | ing | best |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | |

***Oharra: Zenbakitu praktika bakoitza zerrenda honen ageri den euskara-mailaren arabera:**

0. Instruktoreak ez daki euskaraz.
1. Instruktorea euskal hiztuna da.
2. Aurreko puntua + Harreragilea euskal hiztuna da.
3. Aurreko puntua + Dokumentuen eta/edo aplikazioen %50 euskaraz daude.
4. Aurreko puntua + Lantaldearen %50 euskal hiztuna da.

Laster batean jarriko gara zuekin harremanetan, egutegia, ordutegia eta zehaztasunak argitzeko.

jakinbai.eus LANEKI Lanpres GIDA LanbideEkimena

**LANTOKIKO PRAKTIKAK EDO DUALA EGITEKO DATUAK BILTZEA**

**(LP ARDURADUNA)**

Enpresa.............................................................................................

Jaun /andre agurgarria:

Zuregana jotzen dugu, gure ................(Ikastetxearen izena)...................... ikastetxeko Lanbide Heziketako erdi- eta goi-mailako ikasleek zure enpresan Lantokiko prestakuntzako praktikak (LP) edo LH DUALeko enpresa-egonaldia egiteko behar ditugun datuak eskatzeko asmoarekin. LP eta DUALA ikasketak programan sartuta daude, eta dagoeneko ikasten ari direnari jarraipena ematen diote, beraien prestakuntza osatzeko eta bukatutzat emateko.

Ikasturte honetan eskuragarri egongo diren ikaslea... espezialitate hauetakoak izango dira.

Ikasleen esleipena eskolako irizpideen arabera egingo da, eta... eskaera egin behar duzue ondorengo orria betez edo *IKA*... (on–line eginez gero) esteka bidez, ….............(epea)................

Zalantzarik izanez gero, deitu lasai ikastetxera eta jarri harremanetan LP-ko koordinatzaile den.......(izen abizenak).............rekin.

Eskerrik asko aldez aurretik zuen arreta eta laguntzagatik, adeitasunez.

**ZUZENDARIA**

Euskara 1 — Gaztelera — Bestea

1. Instruktorea euskal hiztuna da.
2. Aurreko puntua + Harreragilea euskal hiztuna da.
3. Aurreko puntua + Dokumentuen eta/edo aplikazioen %50 euskaraz daude.
4. Aurreko puntua + Lantaldearen %50 euskal hiztuna da.

## Behin datuak jasota, informazioa enpresari helaraziko zaio

1.- LP-Duala euskaraz egiteko hitzarmena.
2.- Enpresentzako diru-laguntzak.
3.- Euskararen egoera enpresan.
4.- Zer egin praktikak hasi aurretik, bitartean eta ondoren.

Txandakako LHa edo Dualeko enpresa-egonaldia euskaraz egiteko, ikastetxearen eta enpresaren artean akordio bat egitea proposatzen da.

Lanpres GIDA

**ENPRESAREN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-AKORDIOA, DUALEKO IKASKETAKO ENPRESA-EGONALDIAN EUSKARA ERABILTZEKO**

Alde batetik, ................. ..................... jauna/andrea, .......................................Ikastetxearen zuzendaria.

Bestetik, ................................................jauna/andrea, ...................................enpresaren ordezkaria.

Alde biek lankidetza-hitzarmen hau sinatu dute. Hitzarmenaren bitartez ikasleari Dualeko ikasketen enpresako egonaldia euskaraz garatzeko aukera eskaintzeaz gain, ikasleari bide batez kontratuan adierazitako prestakuntza eta gaitasunak euskaraz osatzen eta bereganatzen lagundu nahi zaio.

BALDINTZAK

1.- Honako hitzarmen hau enpresako egonaldiak irauten duen bitartean egongo da indarrean, betiere aldeetako batek kontrakoa adierazten ez badu.

Data:

................. Jauna/Andrea ................. Jauna/Andrea

LP euskaraz egiteko hitzarmena:

**LPK MODULUA GARATZEKO, ENPRESAREN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA AKORDIOA.**

Alde batetik, ................. ..................... jauna/andrea, .......................................Ikastetxearen zuzendaria.

Bestetik, ................................................jauna/andrea, ...................................enpresaren ordezkaria.

Alde biek lankidetza-hitzarmen hau sinatzen dute. Hitzarmenaren bitartez, Lantokiko Prestakuntza modulua garatzeko aukera eskaintzeaz gain, ikasleari bide batez idazpuruan adierazitako prestakuntza eta gaitasunak osatzen eta bereganatzen lagundu nahi zaio.

BALDINTZAK

1.- Ikasleek ez dute lan-loturarik edo lan-harremanik izango Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko aukera emango dien enpresarekin.

2.- Modulua garatu bitartean ikasleek egiten dituzten jardueren truke ez dute ordainsaririk jasoko enpresen aldetik.

3.- Enpresaren ardura izango da ikasle guztiekin laneko segurtasun- eta higiene-esparruko legeria aplikatzen eta betetzen dela ziurtatzea.

4.- Lantokian bertan edo lantokirako bidean istripurik gertatuko balitz, Eskola Aseguruak adierazitakoaren edo Euskal Administrazioak harpidetutako aseguru osagarriaren arabera jokatuko da.

5.- Ikasleen prestakuntza behar bezala koordinatzeko eta garatzeko, enpresak egoki prestatutako instruktore egokia edo egokiak izendatuko ditu.

6.- Prestakuntza-planari dagokionez, eta dagokion Heziketa Zikloaren curriculumean definitutakoaren arabera, ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak landuko dute batera.

7.- Praktikak euskaraz egingo dira. Ikastetxeak eta enpresak beharrezko baliabideak jarriko dituzte ikasleen eta instruktorearen eskura, Lantokiko Prestakuntza edo egonaldia euskaraz izan dadin. Ikaslearen eta instruktorearen komunikaziorako hizkuntza euskara izango da.

8.- Honako hitzarmen hau ikasturte osoan egongo da indarrean eta automatikoki luzatuko da, aldeetako batek kontrakoa adierazi ezean.

Data:

................. Jauna/Andrea
IKASTETXEAREN ZUZENDARIA

Dualeko kontratu-eredua euskaraz:

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
SERVICIO PÚBLICO DE EMPLEO ESTATAL

**PRESTAKUNTZARAKO ETA IKASKUNTZAKO LAN-KONTRATUA**

ENPRESAREN DATUAK
KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK
LANTOKIAREN DATUAK
LANGILEAREN DATUAK
ADIERAZTEN DUTE
KLAUSULAK

7.- Praktikak euskaraz egingo dira. Ikastetxeak eta enpresak beharrezko baliabideak jarriko dituzte ikasleen eta instruktorearen eskura, Lantokiko Prestakuntza edo egonaldia euskaraz izan dadin. Ikaslearen eta instruktorearen komunikaziorako hizkuntza euskara izango da.

# Dokumentu osagarriak

- Lan-praktiketarako fitxa
- Ikasleen zerrenda
- Enpresen zerrenda
- Ikaslearen lan-koadernoa
- Instruktorearen koadernoa
- Tutorearen lan-koadernoa
- Lanpres Gida+

Dokumentu hauek *jakinbai.eus* edo *fpeuskadiduala.eus* webguneetan daude






# Dokumentu osagarriak


LANPRES GIDA+

Lanbide Heziketako Lantokiko Prestakuntza eta Dualeko enpresa egonaldiak euskaraz

Laneki Elkartea 2016

Azalpen eta informazio gehigarriak





LP MEMORIA IKASTURTEA:

1.- SARRERA

2.- LP ETA DUALEKO IKASLE KOPURUA

| MODALITATEA | GUZTIRA | EUSKARAZ | % | HOBEKUNTZAK |
|---|---|---|---|---|
| - LP: | | | | |
| - DUALA: | | | | |

3.-LP eta DUALA EUSKARAZ EGITEKO PROZESUAN PAUSO GUZTIAK EMAN DIRA

| MODALITATEA | GUZTIRA (prozesuan zerrendatzen direnak eta euskararekin zerikusia dutenak) | EMANDAKO PAUSOAK % | KALITATE EZAUGARRIA BETE DA: BAI / EZ | HOBEKUNTZAK |
|---|---|---|---|---|
| - LP: | | | | |
| - DUALA: | | | | |

4. DATORREN IKASTURTERAKO PROPOSAMENAK


Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA dual

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IKASTETXEKO PLANEN AZKEN MEMORIA

2016-17 IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEKO LANBIDE-HEZIKETA DUALEKO PROIEKTUAK EGITEKO

EB02-2017V1

_______ IKAS – EKINEZKO LANBIDE HEZIKETA DUALA

DUALEKO PROGRAMAREN

MEMORIARI DAGOKION DOKUMENTUA

Heziketa Zikloa:

Enpresa:

Enpresako Tutorea:

Ikastetxeko Tutorea:

Praktika edo Dualeko enpresa-egonaldiaren laburpena


Enpresa-egonaldiaren laburpena

Praktika-aldia: LPK

DUALA enpresa egonaldia BEKA: DEEB

DUALA enpresa egonaldia KONTRATOA: DEEK

| Ikaslea | LPK / DEEB / DEEK | Euskaraz BAI/EZ | Espezialitatea |
|---|---|---|---|


PRESTAKUNTZARAKO ETA IKASKUNTZAKO LAN-KONTRATU


Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA dual

IKASKUNTZA EMAITZEN EBALUAZIOA

2016-17 IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEKO LAN

HEZIKETA DUALEKO PROIEKTUAK EGITEK

II Eranskina EBALUAZIOA

*http://www.sepe.es/contenidos/eu/empresas/contratos_trabajo/asistente/pdf/formacion_aprendizaje/Formacion.pdf*

**Dokumentu hauek *jakinbai.eus* edo *fpeuskadiduala.eus* webguneetan daude**



# Proposamenak

## Zer egin enpresako prestakuntza edo egonaldia hasi aurretik, bitartean eta ondoren

Enpresan gauzatzen da Lantokiko Prestakuntza eta Lanbide Heziketa Dualeko lanaldia. Euskaraz egin ahal izateko, oinarrizkoa da ikaslearen eta instruktorearen artean euskaraz aritzea.

Garrantzitsua da harreran ere euskaraz egitea ikasleari. Ondo legoke euskararen presentzia eta erabilera bermatzea hizkuntza-paisaian, eta horrez gain, ikasleak erabiliko dituen dokumentazioetan, aplikazioetan eta lantaldean ere euskara erabiltzea.



| ENPRESAREN EGOERA | AHOLKUA |
|---|---|
| **0. Instruktoreak ez daki euskaraz.** | - Galde diezaiekegu aurrera begira horrelako aukerarik izan daitekeen, eta eskaera egin egoera hori dagoenean jakinarazteko. |
| **1. Instruktorea euskal hiztuna da.** | - Ikasleak praktikak euskaraz egiteko hitzarmena.<br>- Sortuko diren ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izateko hitzarmenak bultzatu.<br>- Lantokian galdetuko da harrera egitean ere euskararen erabilera berma daitekeen. (Dokumentazioa, elkarrizketa, lantaldea…).Itzulpen- eta finantzazio-aukera eskuragarriak proposatu. |
| **2. Aurreko puntua + Harreragilea euskal hiztuna da.** | - Harrerako dokumentazioa ere euskaraz duten galdetu eta, hala izan ezean, informazioa eman. |
| **3. Aurreko puntua + Dokumentuen edota aplikazioen % 50 euskaraz daude.** | - Lagungarria izan daitekeen informazioa helarazi: diru-laguntzen deialdiak (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak…), doako itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzuak, Irale-aholkularitza (irakaslearen bitartez). |
| **4. Aurreko puntua + Lantaldearen % 50 euskal hiztuna da.** | - Aurreikusitako egoera ezin hobea izanik, ez da egitasmo honi lotutako proposamenik egingo, baina enpresa osoaren Euskara Plana abiatzeko informazioa emango zaio: LanHitz, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak…<br>- Jarraipena egingo dugu aurreikuspena betetzen ari dela bermatzeko.<br>- Enpresa zoriondu eta eskerrak emango dizkiogu. |

**Enpresarentzako proposamen gehiago. Ahal den neurrian…**

## Instruktore / tutorearekin ikasleak euskaraz

**Ikasleari konfiantza azaldu, euskaraz egiteko.**



| Eragileak | Hobekuntzarako informazio-aholkuak | |
|---|---|---|
| Instruktorea | Aurretik | ✓ Ikasleari galdetu zein eredutakoa den. |
| | | ✓ Ikaslearen inguruneko hizkuntza-paisaia euskaraz edo elebidun egongo dela ziurtatu. Hori bermatzeko ekintzak agindu. |
| | | ✓ Ikasleak lanean erabiliko dituen dokumentuak eta aplikazioak euskaraz daudela ziurtatu, edo hori lortzeko ekintzak adostu. |
| | Praktikaldian | ✓ Ikaslearekin euskaraz aritu, ahoz eta idatziz, praktikaldiak edo enpresako egonaldiak iraun bitartean. Lan-eginkizunak azaltzeko, aginduak emateko, egoera informaletan komunikatzeko... euskara erabili. |
| | | ✓ Eredu izan ikaslearen aurrean, eta euskaraz egin lankideekin. |
| | | ✓ Ikaslearen gaitasuna baliatu baliagarriak izan daitezkeen hainbat dokumentu edo errotulu euskaratzeko. |
| | | ✓ Lantokiko Prestakuntzarekin eta Dualarekin zerikusia duen dokumentazioa euskaraz bete. |
| | Ondoren | ✓ Ikasturtean egindakoaren balorazioa egin eta hurrengo ikasturteari begirako erabakiak adostu. |

## Lantokian euskaraz

## Zer egin ikaslea enpresara joan aurretik, bitartean edo gero.

| Eragileak | | Hobekuntzarako informazio-aholkuak |
|---|---|---|
| Enpresa | Aurretik | ✓ Ikastetxearekin hitzarmena sinatu, Lantokiko Prestakuntza egitera etorriko diren ikasle euskaldunei instruktore euskalduna jartzeko eta, ahal duten neurrian, behar diren aurrerapausoak emateko. |
| | | ✓ Enpresaren azterketa egin: harrera, Instruktorea, dokumentazioa, giroa, planak, laguntzak... |
| | | ✓ Ikasleak enpresari egin diezaiokeen ekarpena adostu. |
| | | ✓ Ikaslea zein eredutakoa izango den zehaztu. |
| | | ✓ Instruktore euskalduna izendatu. Gaitasuna aitortu. |
| | | ✓ Harrera euskaraz egingo zaiola bermatu: ahoz zein idatziz. |
| | | ✓ Ikaslearen inguruneko hizkuntza-paisaia euskaraz edo elebidun egongo dela ziurtatu. Hori bermatzeko ekintzak agindu. |
| | | ✓ Ikasleak lanean erabiliko dituen dokumentuak eta aplikazioak euskaraz daudela ziurtatu, edo hori lortzeko ekintzak adostu eta gauzatu. |
| | | ✓ Ikasle euskaldun bat praktiketan ari dela jakinarazi langile guztiei. Denen atxikimendua eskatu. Jakinarazpena bidali, kartela jarri iragarki-tauletan, ikaslea lanean ari den gunean... |
| | | ✓ Errotuluak aldatu eta dokumentazioa/aplikazioak euskaratzeko baliabideak eskuratu. Diru-laguntzak eskatu Eusko Jaurlaritzari, Aldundiari, Udalari... |
| | Praktikaldian | ✓ Praktikaldiaren edo enpresako egonaldiaren jarraipena egin, ikasleari galdetuz adostutako hizkuntza-baldintzak betetzen ari diren. Hala bada, instruktorea zoriondu; bestela, irakaslearekin hitz egin, hizkuntza-baldintza egokiak bermatzeko zer egin daitekeen adosteko. |
| | Ondoren | ✓ Ikasturtean egindakoaren balorazioa egin eta hurrengo ikasturteari begirako erabakiak adostu. |

| Eragileak | | Hobekuntzarako informazio-aholkuak |
|---|---|---|
| Harreragilea | Aurretik | ✓ Ikasleari galdetu zein eredutakoa den. |
| | | ✓ Ikaslearekin harreran erabiliko dituen dokumentazioa eta diskurtsoa euskaraz prestatu. Laguntza behar badu, eskatu. |

| Eragileak | | Hobekuntzarako informazio-aholkuak |
|---|---|---|
| Instruktorea | Aurretik | ✓ Ikasleari galdetu zein eredutakoa den. |
| | | ✓ Ikaslearen inguruneko hizkuntza-paisaia euskaraz edo elebidun egongo dela ziurtatu. Hori bermatzeko ekintzak agindu. |
| | | ✓ Ikasleak lanean erabiliko dituen dokumentuak eta aplikazioak euskaraz daudela ziurtatu, edo hori lortzeko ekintzak adostu. |
| | Praktikaldian | ✓ Ikaslearekin euskaraz aritu, ahoz eta idatziz, praktikaldiak edo enpresako egonaldiak iraun bitartean. Lan-eginkizunak azaltzeko, aginduak emateko, egoera informaletan komunikatzeko... euskara erabili. |
| | | ✓ Eredu izan ikaslearen aurrean, eta euskaraz egin lankideekin. |
| | | ✓ Ikaslearen gaitasuna baliatu baliagarriak izan daitezkeen hainbat dokumentu edo errotulu euskaratzeko. |
| | | ✓ Lantokiko Prestakuntzarekin eta Dualarekin zerikusia duen dokumentazioa euskaraz bete. |
| | Ondoren | ✓ Ikasturtean egindakoaren balorazioa egin eta hurrengo ikasturteari begirako erabakiak adostu. |

| Eragileak | | Hobekuntzarako informazio-aholkuak |
|---|---|---|
| Lankideak | Aurretik | ✓ Jabetu ikasle euskaldun bat Lantokiko Prestakuntza egitera etorriko dela eta gauzak nola egin behar diren hausnartu. |
| | Praktikaldian | ✓ Saiatu euskaraz hitz egiten ikaslearekin, instruktorearekin eta gainerako lankideekin. |

Pakete ofimatikoak euskaraz:
*http://www.euskara.euskadi.eus/r59-20660/eu/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/eu_9567/aurkib.html*

# Diagnostikoa eta laguntzak

## Euskararen egoeraren diagnostikoa lantokian

### Euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko baliabideak.




ER20 Enpresaren egoerari buruzko fitxa:
*http://jakinbai.eus/edukiak/er20-enpresaren-egoera-fitxa*




Auto-diagnostikoa:
*http://www.baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa*







LanHitz:
*http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/autodiagnostikoa/eu_diagnost/autodiagnostikoa.html*

## Diru-laguntzak eta itzulpen-zerbitzuak on-line

Hainbat erakundek diru-laguntzak ematen dituzte enpresetan euskara sustatzeko: Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, mankomunitateek, garapen-agentziek, udalek...

Urteko programak izaten dira. Epeak eta berezitasunak webguneetan argitaratzen dira.

### Informazioa:




Jakinbai:
*http://jakinbai.eus/foroa/fct/33805520*




Bai Euskarari:
*http://www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak*

### Baliabideak:

Beste webgune batzuk lagungarriak izan daitezke itzulpenak egiteko, euskarazko dokumentu-ereduak jasotzeko, eta errotulazioak euskaratzeko.




*http://www.itzultzailea.euskadi.net/traductor/portalExterno/text.do*




*http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/agiriereduen_bankua/eu_agiri_er/agiri_ereduen_bankua.html*

## Hiztegi teknikoak



Laneki:
http://hiztegia.jakinbai.eus/




Zurgintza:
http://zurgintza.jakinbai.eus/eu/etxe-bizkar




Elhuyar:
http://zthiztegia.elhuyar.eus/




EGAMaster:
http://egamaster.elhuyar.eus/eu/




DANOBATGROUP:
http://hiztegia.danobatgroup.eus/eu




Trengintza:
http://trenhiztegia.eus/proiektua




Automobilgintza:
http://automotivedictionary.net/



Hainbat hiztegi tekniko eskuragarri:
http://jakinbai.eus/zz-hiztegi-teknikoak/hiztegi-teknikoak/hiztegi-teknikoak



## Lanbide Heziketako Legedia



Lanbide Heziketako Legedia

- LHren Erregulazioa
- LHko Modalitateak: Librea, Partziala, Urrutikoa, DUALA, Espezializazio Programak
- Sarbidea eta Ikasleak Onartzea Heziketa-Zikloetan
- LHko Ebaluaketa
- LHko Baliozkotzeak
- HLO Tituluen DEKRETUAK
- Profesionaltasun-Ziurtagiriak
- Moduluen Katalogoa
- LHko Ikastetxe Integratuak
- Euskadiko LHko Erakundeak

Euskadi, auzolana

Lanbide Heziketako Legedia:
*http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2638/eu/contenidos/informacion/legelabur/eu_def/index.shtml*

**Eskerrik asko proiektu honetan parte hartu duzuen eta ekarpenak egin dizkiguzuen eragile, erakunde eta pertsona guztioi.**

Laneki
LANABES ARABAN EUSKARA LANEAN
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
Fp LANBIDE HEZIKETA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

jakinbai.eus